SAN BARTOLOMEAK ARGAZKITAN EGUNEZ EGUN

INKESTA ZER EGIN BEHARKO LITZATEKE JAIAK EGUNEZ ERE BIZITZEKO?

# Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko irailaren 5a/XI. urtea/455. zkia




# Jaiak gogoan iraileko aldaparen aurrean

"EZ DA ALDAPARIK, ZELAIRIK EZ DUENIK" (esaera zaharra)

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Kotxeralo B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**
1 0:00etati k-12:30era
1 5:00etati k-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

MATROCULA EPEA
ZABAL 1K
telefonoz deltu edo
LDEZ
ARRATSA
9130etar a
1 7 :30etatik 1 n
akademia

# K.E.Y.
ingElEsEko akadEmia

*Bernardo Ezenarro, 5 -3 esk - Tel: 943 74 30 44*

***Atzerrerrira joan gabe gurean aurkituko duzu ingelesa ikasteko giltza!***

- Maila guztiak
- Haurrentzako taldeak
- CAMBRIDGE YOUNG LEARNERS ENGLISH TESTS (STARTERS, MOVERS, FLYERS) azterketa egiteko aukera haurrentzat
- KET, PET, First Certificate, Advanced (CAMBRIDGE Azterketarako prestaketa)
- Talde homogeneoak
- Ikus-entzunezkoak
- Talde mugatuak

***Klaseak irailaren 22an hasiko dira!***

K·E·Y Academia de ingles

CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438

2003-2004 ikasturtea

ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2 . 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 Publizitatea: Q 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04 E-posta: barren@topagunea..com
Helbide informatikoa: www.topagunea.comlbarren
ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegli ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLAEORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

*Elgaibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak* eta *Forn Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

ric kutxa
zuri esker

INEsiturrik

DANOBAT

GOITI
GRUPO DANOBAT

## BERTSOA BIZIRIK!

Gazte elgoibartar bat naiz, eta baita bertsozale amorratu bat ere. Jaien programari buruz iritzi bat eman nahi nuke, izan ere, ez dugu bertso saiorik entzuteko parada izan, bai ordea, gainontzeko kultur ekintzen aukera zabala. Aurreko urteetan, bat bakarra izan arren, beti eduki ohi dugu bertsolari bikote bat, beraien bertso saio motz batekin jaiak alaitzen. Aurten ordea, ez da hori ere izan.

Ez al da bada bertsoa kultur ekintza aberats bat?

Ez al du bada bertsolaritzak inongo paperik betetzen Elgoibarko bezalako jai herrikoi batzuetan?

Ez al da bada bertsoa, euskalduna, jai girorako aproposa, kulturala?

Beno, hurrengo urtera begira, asko eskertuko nuke ekitaldi zenbaitzuk kontutan hartzea.

Besterik gabe, gora San Bartolome!

A.M.
44172644-V

## EUSKAL PRESOA KALERA

Irailaren 11n, Iñaki Jaio Bustindui preso elgoibartarra, ia 19 urte preso egon eta gero, aterako da Zaragozako espetxetik. Goizeko 4ak aldera aterako dira lagun eta senideak, Txankakua zubitik, bere bila joateko. Nahi duenak joan ohiko tokietan eman dezala bere izena, autobusa atera ahal izateko. Herrira, berriz, arratsalde aldera heldu eta 20:00etan ongi-etorri xume bat egingo zaio, herriko plazan, gero afari-merienda izango delarik. Omenaldia, ostera, hurrengo larunbatean izango da, senide eta neskalagunarekin, lasai egoteko egun batzuk izan eta gero. Ekintza hauek antolatzeko Amnistiaren aldeko mugimenduak dei egiten dizue, hilaren 9an, asteartea, Kimetz elkartean egingo den Herri B atzarrera.

I.O.S.
15364490

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
THE HARTFORD
ASEGURUAK

CORDON
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

ENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

### Jaietako giroa, batez ere, gauez nabarmentzen da

# Ier egin beharko litzateke jaiak egunez ere bizitzeko?

**JOSE RAMON CASAIn**
40 urte, garraiolaria

Egun bakoitzak bere xarma dauka. Batzuk egunez bizitzekoak dira eta besteak gauez. Hala ere, gauak bes enkantu bat dauka, eta gazteei ezin zaie gau giroa kendu.





**JOSE AGUSTIN OLABE**
35 urte, brigadako langilea

Nik egunez eta gabez bizi ditxut jaixak. Gaztiek egunez lo eitxen dabe, eta hori aldatzia ez da erreza. Urtiak bete heinian egunez gehixo ibiltzen da, eta bestela ume bat ekartzia da irtenbidia.

**MARIBEL LIZARAZU**
52 urte, irakaslea

Ez da erraza. Ekintzak badaude baina jendeak ez du parte hartzen. Lehen Plazan erromeria izaten zen arratsalde osoan, eta jende mordoa aritzen zen dantzan. Gustatuko litzaidake lehengora bueltatzea.





**AITOR ARREGI**
29 urte, pintorea

Nerekin ez dao erremediorik. Gauez ibili eta egunez lo. Gauzak badaude, baina gu askotan egunez juten gera ohera. Batzutan egunez eta gabez eitxen ditxugu, baina normalian juergia gabera bideratuta dao.

**ARANTZAZU ALDAZABAL**
40 urte, administraria

Zerbait gehiago antolatu beharko litzateke egunez gazteek parte hartzeko, baina ez dakit zer. Gauez ibiltzea gehiago gustatzen zaigu, baina egunez ere giro polita dago. Merezi du jaiak egunez ere bizitzea.





**[illegible]**
14 urte, ikaslea

Gu egunez eta gauez ibiltzen gera, baina gauez giro hobia egoten da. Egunez igartzen da jende falta, oso jende gutxi urtetzen da kalera. Gaztientzat kontzertu gehixo egon biharko litzake egunez.

---


# ETEen enpresa gestio ikastaroa

**Europa Gizarte Fondoak kofinantzatua**

***Administrari profila eta ETEen administrazio-gestioan esperientzia duten emakumeei zuzendua.***

- **Iraupena:** 2003ko Urritik 2004ko Martxora (100 ordu)
- **Tokia:** Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 7 EIBAR
- **Ikastaro emailea:** Elgoibarko Gestio Eskota
- **Prezioa:** doan. Ikastaroaren hasieran 150,00 euroko matrikula kobratuko da pertsona bakoitzeko, baina gutxienez %80ko asistentzia izanda, diru kopuru hori ikastaroa amaitzean itzuli egingo da.
- **Ordutegia:** astearte eta ostegunetan, 17,30etaik 20,00etara.
- **Izen-ematea:** Debegesa. Tel. 943 820 179 - e-maila: naiara@debegesa.com

Debegesa
Deba Beheko Garape Ekonornikorako Elkarte
Sociedad para et Desan̄ol conct>mico del Bajo Deb

Debegesak antolatua
Europako Gizarte Fondoak kofinantziatua
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Segurtasun Saila

Europa Gizarte Fondoa — Fondo Social Europeo

EUSKO JAURLARITZA
JUSTIOA LAN ETA GILMITE SEGURANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO V SEGURIDAD SOCIAL















**Udataren izenean eskerrak elgoibartar guztioi, haur, gazte zein nagusi, denon artean lortu baitugu San Bartolome jaiak giro eta umore ezin hobean pasatzea.**

**Irailaren** 5etik aurrera **Herriko Antzokian** izango da zinea ikusteko aukera.




**"The Hulk"**
gaueko 22: 1 5ean







Azken urteetan moduan 3 txupinazo izan ziren. Ofiziala (13:00), tradizionala (15:00) eta gune askatukoa (18:00). Eguraldia lagun jende mordoa elkartu zen hiruretan.

# 23

## Bezpera











Iñigo Lariz Azkarateko malda gogorrak igotzen (ezkerrean). Elgoibartarra 3. postuan sailkatu zen "LVII. Memorial Etxaniz" txirrindulari lasterketan.

Parrokiko abesbatzak abestutako salbea entzun zuen udalbatzak parrokian, Udal Txistulari Taldearen laguntzaz. Bitartean, Emperadores Mexikoko mariatxiek alaitu zituzten kaleak.





Aurpegi berriak izan ziren Soka Dantzako protagonistak, tartean, Marivi Agirregomezkorta alkate berria. Zaindariaren prozesioa hunkigarria izan zen baina iaz baino sikuagoa, noski.







# 24 San Bartolome







Golden Apple Quartet taldearen ahots eta umore onak eta profesionalen arteko esku pilota partiduek borobildu zuten San Bartolome Eguna.







Sokamuturra, Mauxitxa txaranga, ardoa, kamiseta zuria, zapi gorria eta Errosario kalea dira osagaiak. Dena ongi nahastu eta plater ederra: Txiki Eguna.



# 25









Iaz euritik ihesi arkupetan ospatu genuen Txiki Eguna elgoibartarrok. Aurten Plaza Handiak jendez gainezka egin zuen eta berriz entzun ziren "ura-ura" oihuak











# Exiki Eguna











Mikel Goñi baztondarrak berez zegoen giro aparta areagotu zuen Ikastolako frontoian. Barriolarekin bikote eginez Xala eta Goñi IIla gainditu zituzten.

# 26

# Umeen Eguna



"Oporrak" izan zen Gurutze Gorriak antolatutako marrazki lehiaketako gaia. Guztira 330 haurrek hartu zuten parte. Gauez Betizu taldeak arrakasta itzela izan zuen.





Ipurdiko minak gora behera, primeran pasa zuten gaztetxoenek euren egunean.





















Gaztaroa aro eroa! Ba, horixe...
Goitibeherak, futbola zezenarekin, jump-machine...



# 29 Gazteen Eguna







Hiru sokamuturretan eta Plaza Txikian ibili den jendetzak argi laga dute herri zezenzalea dela Elgoibar.





Izeta II.ak irabazi zuen V. Harrijasotze Txapelketa. Izeta 111.0 sailkatu zen bigarren postuan eta Jabier Arriola "Egi" elgoibartarra (iruditan) hirugarren postuan.





Astigarragako Lizarraga baserriak irabazi zuen 20. Sagardo Lehiaketa. Zubietako Astiazaran baserria sailkatu zen bigarren postuan.

# 30

## aserritarrep
## eguna







rIP~51111111

50 behi inguruk hartu zuten parte Gipuzkoako Limousin Ganadu Txapelketan. Bestalde, ganadu enkantean parte hartu zuten 12 abelburutatik 10 behi saldu ziren.







# 31 Jubilatuen Eguna

Hainbat jubilatu elkartu zen jubilatuen bazkarian Olaizaga kiroldegian. Gelatxo orkestrak alaitu zuen bazkalostea.



11 bikotek hartu zuten parte Dantza Solteko Lehiaketan. Jon Arrillaga eta Izarne Merino bergarararrak nagusitu ziren.









***I. URTEURRENA***

*2002ko abuztuaren 14an, 64 urte zituela hil zen MARIA JESUS IMAZ ARZUAGAren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian larunbatean, hilak 6, arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*









# Gune

## AsKatua

Txupinazoa, bertsoak, aurreskua eta K*104 herriko taldearen kontzertuarekin hasi ziren jaiak bezperan gune askatuan. Aurrez Su ta Gar taldeak kontzertua eskaini zuen Gaztetxean hilaren 22an. Kontzertu gehiago ere izan dira, eta beti moduan jende asko ibili da Madala inguruan.








**BaRRen M E N DA RO N** BANATZEKO

**BANATZAILEAK BEHAR DIRA**

**Eskatzen da:** 16 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea.

Interesatuok deitu 943 74 41 12 telefonora
edo pasa BARRENetik, Nafarroa Plazan duen lokaletik.




41111.

1111111111>

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**

EUSKO JAURLARITZA

***EIBARKO H.E.O.k matrikula ofizial epea irailaren 15etik aurrera izango dela adierazten du.***

**OHARRA:**

- 2. edo 3. mailara sartzeko: Autokokapenerako 1. eta 2. testak irailaren 1tik 22ra eskolako idazkaritzan hartzeko aukera izango du hala nahi duenak.
- **4. edo 5. mailara sartzeko** maila probak honako atalak izango ditu:
  - Autokokapenerako 3. eta 4. testak.
  - Proba idatzia eta ahozkoa.

**Informazio gehiago:**
Jardiñeta, 3 bis - **20600 EIBAR**
Tfnoa.: 943 20 06 48 - Faxa: 943 20 06 78
E-maila: eoieibar@euskalnet.net
**www.euskalnet.net/eoieibar**

# Residencial MAALA Bizigunea
# Elgoibar




URTAGO PROMOZIOAK, A.I.E.